

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2021 Foru dekretua, irailaren 14koa. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 31/2021 Foru Dekretuaren 2. artikuluan antzemandako akats materialaren zuzenketa. Foru Dekretu horren bidez onetsi egin zen prozeduren eta zerbitzuen katalogoa sortzea eta hura eta izapideen gida arautzea**

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 31/2021 Foru Dekretuaren bidez, onetsi da prozeduren eta zerbitzuen katalogoa sortzea eta hura eta izapideen gida arautzea.

Haren 2. artikuluan, zeinean uztailaren 20ko 31/2021 Foru Dekretu horretarako definizioak ezartzen baitira, huts material bat aurkitu da artikulua osatzen duten hiru apartatuen numerazioan.

Hortaz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, zuzendu behar da prozeduren eta zerbitzuen katalogoa sortzea eta hura eta izapideen gida arautzea onetsi duen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 31/2021 Foru Dekretuaren 2. artikuluan aurkitutako huts materiala.

Horregatik, agindutako txostenak egin ondoren eta Enplegua, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko eta Foru Administrazioko Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Bakarra. Prozeduren eta zerbitzuen katalogoa sortzea eta hura eta izapideen gida arautzea onetsi duen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 31/2021 Foru Dekretuaren 2. artikuluko apartatuen numerazioa zuzentzea.

Aipatutako 2. artikuluan, hau dioen lekuan:

#### **"2. artikulua. Definizioak**

1. Foru dekretu honetako zenbait kontzeptu:

- «Prozedura»: Administrazioaren borondatea adierazten duen egintza administratibo bat, zentzu zabalean, xede duten izapideen sekuentzia; egintza aurkaragarria zein aurkaraezina izan daiteke (ad.: baimenak, emakidak, laguntzak, dirulaguntzak, etab.).

- «Zerbitzua»: jarduketa administratibo beregaina, berak soilik eratzen duena (ad.: tasak ordaintzea, datuak kontsultatzea, hitzorduak, etab.).

- «Herritarrak»: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, Arabako Foru Aldundia eta foru sektore publikoko beraren erakundeak ez besteak.

3. Prozeduren eta Zerbitzuen Katalogoan Arabako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko gainerako erakundeek kudeatzen dituzten prozedurak eta zerbitzuak biltzen dira, bai barrukoak, hau da, Foru Aldundiak eta beraren erakundeek jasotzen dituztenak, bai kanpokoak, hau da, herritarrek jasotzen dituztenak.

4. Izapideen Gidan Arabako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko gainerako erakundeek kudeatzen dituzten prozedura eta zerbitzuetako batzuei buruzko informazioa biltzen da, hain zuzen ere kanpoko hartzaileak dituzten izapideak dituzten prozedurei eta zerbitzuei buruzkoa.

Gidan agertzen den informazioa Katalogotik hartzen da modu automatikoan. Gero, prozedurei eta zerbitzuei buruzko informazioa egokitzen da, herritarrentzat dela kontuan hartuta.”

Hau esan behar du:

## **“2. artikulua. Definizioak**

### 1. Foru dekretu honetako zenbait kontzeptu:

- «Prozedura»: Administrazioaren borondatea adierazten duen egintza administratibo bat, zentzu zabalean, xede duten izapideen sekuentzia; egintza aurkaragarria zein aurkaraezina izan daiteke (ad.: baimenak, emakidak, laguntzak, dirulaguntzak, etab.).

- «Zerbitzua»: jarduketa administratibo beregaina, berak soilik eratzen duena (ad.: tasak ordaintzea, datuak kontsultatzea, hitzorduak, etab.).

- «Herritarrak»: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, Arabako Foru Aldundia eta foru sektore publikoko beraren erakundeak ez bestekak.

2. Prozeduren eta Zerbitzuen Katalogoan Arabako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko gainerako erakundeek kudeatzen dituzten prozedurak eta zerbitzuak biltzen dira, bai barrukoak, hau da, Foru Aldundiak eta beraren erakundeek jasotzen dituztenak, bai kanpokoak, hau da, herritarrek jasotzen dituztenak.

3. Izapideen Gidan Arabako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko gainerako erakundeek kudeatzen dituzten prozedura eta zerbitzuetako batzuei buruzko informazioa biltzen da, hain zuzen ere kanpoko hartzaileak dituzten izapideak dituzten prozedurei eta zerbitzuei buruzkoa. Gidan agertzen den informazioa Katalogotik hartzen da modu automatikoan. Gero, prozedurei eta zerbitzuei buruzko informazioa egokitzen da, herritarrentzat dela kontuan hartuta.”

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 14a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Zerbitzu Orokorraren zuzendaria*

**JAVIER MARDONES GÓMEZ-MARAÑÓN**